BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1291

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 7koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bidez, merkataritza-estabelzimenduak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2012ko ekitaldian emateko deialdia jakinarazten da jendaurrean.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak merkataritzako saltokiak modernizatzeko laguntza-programa arautzeko 2010eko maiatzaren 12an emandako Aginduaren bitartez (ekainaren 9ko EHAA, 108. zk.), 2011ko ekainaren 15eko Aginduak aldatuta (ekainaren 28ko EHAA, 122. zk.) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen diru-laguntzen nondik-norakoak ezartzen dira, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten enpresek merkataritza-establezimenduak modernizatzeko inbertsio-proiektuak gara ditzaten.

Aipatutako aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2012ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 8. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2010eko maiatzaren 12an emandako Aginduaren bitartez (ekainaren 9ko EHAA, 108. zk.) 2011ko ekainaren 15eko aginduak aldatuta (ekainaren 28ko EHAA, 122. zk.) arautu zen merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa, eta, hain zuzen ere, 2012ko ekitaldirako laguntza horien deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

Horretarako 4.644.000 euro bideratuko dira, 6/2010 Legean (abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena) ezarritako aurrekontu-partidetan esleitutako kredituen kargura.

Deialdi honi lotuta emango diren diru-laguntzen zenbateko osoa ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengoa eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa. Horrenbestez, diru-kopuru hori ahitutakoan, ezin izango da diru-laguntza gehiago eman; beraz, hortik aurrera, baliorik gabe geratuko da ebazpen hau. Egoera horietakoren bat gertatuz gero, horren berri jakinaraziko da Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpenaren bidez.

2. artikulua.– Eskakizunak.

Enpresa eskatzaileek, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko maiatzaren 12ko Aginduan (eta agindu hori aldatu zuen 2011ko ekainaren 15eko Aginduan) aurreikusitako laguntzak jasotzeko, agindu horren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete etekizunak konplitu beharko dituzte.

3. artikulua.– Eskaerak eta epea.

1.– Eskabideak eta gainerako dokumentazio osagarria Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoetakoren batean aurkeztuko dira, aurkeztutako proiektua nongoa den, horko lurralde-bulegoan; bestela, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkez daitezke agiriok.

Eskabidea eta inprimakiak betetzeko ereduak Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoetan jaso daitezke, edo, bestela, interneteko helbide honetan ere bai: www.euskadi.net/comercio.

2.– Eskabideak aurkezteko epea, hasi, deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta, bukatu, horretarako izendatutako kreditua ordurako ahitzen ez bada behintzat, 2012ko ekainaren 30ean bukatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismokoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 7a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.